



XIX. mendeko organoa zaharberritzen ari dira, eta abian da diru-bilketa Urnietan

Cavaille-Coll instrumentua berritzeko 80.000 euro behar dituzte, xede argiarekin: San Migel Goiangerua historia eta musikaz betetako lekua izatea / 4-5

AIURRI

"Alkateen Mugimendua"

Andoni Alvarez (EH Bildu) eta Leire Artola (EAJ-PNV) alkateei elkarriketa / 6-7

SEGAko kideei elkarriketa, Goiburuko festak hasteko egun gutxiren faltan / 8-9

"Oporrak bakean: 25 urte Andoainen", Hurria-Sahara elkartearen iritzi-artikulua / 3

UZTAILAK 16 · OSTEGUNA
GALARRETA JAI ALAI · 16:30

sukia

JAI-ALAI

SUMMER SEASON

SARRERAK

ORIAMENDI ERREMONTA TXAPELKETA 2 SET, 15 TANTORA · 3. SETA, 8 TANTORA
AIESTARAN VII · UGARTE II VS SUSPERREGI · GOIKOETXEA

JAI-ALAI SUMMER SEASON 2 SET, 15 TANTORA · 3. SETA, 8 TANTORA
SEGUROLA · EZKURRA II VS AZPIROZ · LARRAÑAGA

JAI-ALAI SUMMER SEASON 2 SET, 15 TANTORA · 3. SETA, 8 TANTORA
JUANENEA · ALDABE VS BARRENETXEA IV · ZUBIRI

sukia

ORIA MENDI
BIZI ERREMONTA

PAPILERA
COMPUTACIONA
DE ZUCUAGA

SEGURAN

Orona

HAIN GIPUZKOA

VOLVO
Auto Suecia

AIURRI

GURE USTEZ

HAINBAT SINADURA ANDOAIN

Aspaldiko jarrera epelen ondorioa da lazoaren auzia

Lazoaren ondorioak larriak direla esan eta esan ari gara baina larritasuna kendu gabe bada sakonekoa den kontu bat eta honaino, LAZORAINO ekarri gaituena: Andoain herriaren kontsiderazio eza lurralde antolaketa guztietan, baita plan estrategiko eta ekonomikoetan ere.

1. Lurralde antolaketan:

- Donostialdea area funtzionala Urnietan bukatzen da, Urumeako Saihesbidea bukatutzat eman zen bezala.
- Tolosaldea Adunan hasten da eta hortik gora 17 udalerri ditu bere barne.
- Eta Andoain? Non kokatzen da Andoain? Inon ere ez. Andoain, "rótula" edo "sitio de transición" bezala izendatzen eta tratatzen da.

Barka bezate bertako biztanleek orain erabiliko dugun esaldiaren gutxienezko tonuarengatik, baina bada Espainian lurralde bat zeinengatik esaerak hala dio: "Albacete, llega, caga y vete". Horrelako zerbait esango genuke dela Andoain hainbat politikarientzat, Gipuzkoako Albacete alegia. Pasa egin behar den herria, eta azkar bada, hobeto eta orain, gainera, tunelean sartu eta ez bagaituzte ikusten, are eta erosogo.



2. Polo ekonomiko eta teknologikoetan:

Noiztik ez da kalitatezko lanpostuak sortuko dituen enpresarik kokatzen Andoainen? Zein eratako industria poligonoak dira eraiki diren azkenak? Zenbat inaugurazio ekitaldi egin dituzte Gipuzkoako agintariek gure herrian?

Are larriago, Diputazioak aurkezturiko fotomontaien arabera, jadanik martxan ditugun bi enpresa txiki pikutara doaz, hortik kanpora bidaltzen dituzte Diputazioaren erdipurdiko konponketaren eraginez.

Enpresa txikiak izango dira baina bere zergak gure herrian ordaintzen dituzte eta

gure ekonomia sostengatzen laguntzen dute. Horretaz gain, "Itsasmendi Karabanak"en kasuan, familia batek sorturiko negozioaren bigarren belaunaldiaz ari gara, gurasoek altxatako negozioari jarraibidea eman nahian egindako lana eten egin nahi zaie.

Momentu zailak ezagutzen ari den lehen sektorean lanean ari den etxalderik garrantzitsuenari ere bere lan jardunarako erabiltzen dituen lur sailak ere murriztu nahi zaizkio.

Beraz, eraikitza ez, suntsitzera baizik datoz gipuzkoarren ongizatearen izenean. Zein gipuzkoarrentzat?

3. Zenbat inbertsio egin ditu Diputazioak, azken 20 urteotan, Andoainen?

2011n sekulakoa egitekoak ziren, gure herriarentzat konponbiderik hoberena izango zenarekin etorri ziren baina 15 urte beranduago haren laurdenera iristen ez den beste bat inposatu nahi digute, inbertsio kaskarragoa eginaz.

Inbidiaz ikusten ditugu inguruko herrietan, trafikoak erdigunetik kendu aparkaleku gehiago ahalbideratuaz, eraiki dituzten berdegune eta aisialdirako parkeak, aire libreko kirol instalazioak, bidegorriak...

Baina inbidia gehiago ematen digute izan dituzten

udal ordezkariak, bere herriaren ongizatea, bizi-kalitatea planifikatu, erreklamatu eta gauzatzea lortu dutelako, eta ez, gure kasuan bezala, batzuk bere alderdiaren ahotsari otzan eta beste batzuk faltsu, baina "etxekalte" aritu direlako.

Non egon dira plangintza eta egitasmo guzti horiek diseinatu direnean? Zertarako balio izan digu Industria eta Garapeneko sailburuaren aholkulari taldean aritzeak, edota Diputatu Nagusiaren taldeko bulegoan jarduteak?

Andoaindarrok, elkartu eta gure hitza aintzakotzat hartu bitartean ez gaitezen isil, ikusi baitugu urtetan eta urtetan izan ditugun ordezkariak beste aldera begiratzen zuten bitartean inbertsioak eta bizikalitetea beste herritara bideratu dela.

Sinatzaileak:

- Garbiñe AgirreAzpiazu.
- Beatriz Amondarain Ubarrechena.
- Marivi Hernandez Arana.
- Izaskun Iztueta Ansa.
- Ana Mendikute Garaialde.
- Maixabel Ormazabal Garcia.
- Karmele Otaegi Negredo.
- Maixabel Soler Etxaniz.
- Lurdes Ubillos Galarraga.
- Koro Ubillos Galarraga.
- Mertxe Zabala Huizi.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: **ERROITZ** ERROITZ MUGATZEN ALJATUAK: **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITATZEN DA:

ANDOINGO UDALA **Urnietako udala**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

GIPUZKOA Foru Aldundia **EUSKO JAURLARITZA** GOBIERNO VASCO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Babestutako hedabidea

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

Bikam **A** **FSC** **PEFC**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

KOMUNITATEA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

Oporrak bakean: 25 urte Andoainen



AIURRI

Uztailaren 6an, astelehena, Andoaingo Udalak harrera-ekitaldia antolatu zuen gure herrira iritsitako saharar umeentzat. Horrela, Lansari eta Mahmud gure artean egongo dira uztaila eta abuztuaren, familia berean, Cruz, June eta Hugorekin.

Baina aurtengoa ez da urte arrunt bat: 25 urte bete dira lehen aldiz Saharako bost haur jaso genituenetik. Mahayuba, Omar, Bena, Amer eta Jamida izan ziren lehenak. Harrezkero, eta etengabe –pandemian izan ezik–, urtero, Andoaingo familiaren batek saharar ume bat hartu du bere etxean.

Haiek izan dira, eta izaten jarraitzen dute, borrokaren, erresistentziaren eta duintasunaren ikur den herri baten enbaxadorerik onenak.

Espainiak burutu gabe utzitako deskolonizazioan daude gatazkaren sustraiak; porrot horrek lurraldea zatituta eta okupazioaren mende utzi zuen, okupatutako lurraldeetan, lurralde liberatueta eta Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan banatua. Azken horietatik datoz gurekin dauden umeak. Haien kausak nazioarteko hainbat ebazpenen babesa du, NBERen babesa barne, baina potentzia handien presioak eragozten du herri honen eskubide nagusia betetzea: erreferenduma.

Kanpamentuetako bizitza ez da erraza. Hamada izeneko basamortuko leku batean bizi dira, eta muturreko tenperaturak pairatzen dituzte, bai udan bai neguan. Elikadura nazioarteko laguntzaren menpe dago. Arroz kilo bat edo atun-lata bat emanez Elikagaien Karabanan parte hartzen duen andoaindar bakoitzak haien borrokan eta biziraupenean laguntzen du.

Horregatik, Hurria Saharak eskerrak eman nahi dizkie 25 urtez Saharako haur bat hartu duten familia guztiei. Elkartasunaren adibide zarete. Baina Oporrak Bakean programa askoz gehiago da: kontzientzia kolektiboa bizirik mantentzen du, eta bere askatasunaren eta duintasunaren alde borrokatzen duen herri baten kausa ikusarazten du. Eta herri hau, Andoain, beti izango dute ondoan.

Harrera-ekitaldia

"Oporrak Bakean" egitasmoaren baitan, Saharako bi haur uda igarotzen ari dira Andoainen. Aurreko astean Andoaingo Udalak harrera egin zien haurrei zein harreraren hartu dituzten familiei. Ohi bezala, Andoainen ordezkaritza politikoa duten alderdiek parte hartu zuten harrera-ekitaldian. Hurria-Sahara elkarteko kideak ere bertan izan ziren.



Babilonia eremua. UDALA

Etxebizitzaren eraikuntza Babiloniako eremuan

Birpartzelazio Proiektua behin betiko onartu da, urbanizazioaren eta eraikuntzaren aurreko dokumentua. Gauzak ondo, Urnietako Udalak adierazitakoaren arabera, "2026an hasiko da Babiloniako eremuan 340 etxebizitza eraikitzen". Hala, eraikiko diren 340 etxebizitza horietatik guztietatik %75 babestuek izango dira, hots, babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatuak.

Halaxe argudiatu du iragarpena Urnietako Udalak: "Merkatu librean erosteko zailtasunak dituzten familiei etxebizitza eskuratzeko aukera hobetuko zaie, eta era berean, herriko gazteen emantzipazioa erraztuko da. Halaber, Urnietako garapena eta hazkundea bultzatuko dira".

2025eko uztailako plenoan, aho batez, 340 etxebizitza eraikitze-prozesuan urrats berria eman zen. Orduko hartan kontzertazio junta eratzeke urratsa eman zen. Segidan zetozen Birpartzelazio Proiektua eta Urbanizazio Proiektuaren onarpena.



AIURRI



AIURRI

Txosnen itzulera Sanmieletan

"Urnietak txosnagunea izango du, berriro, irailaren 25-29 bitartean ospatuko diren Sanmieletan", hitz horiekin egin du aste honetan iragarpena Urnietako Udalak. Maiatzean akordioa sinatu zuten bi aldeek eta, ondoren, txosnak jartzeko eskaera-epea ireki zen. Funtzionamendu-araua ere adostu dutela aurreratu du udal erakundeak.



URNIETAKO UDALA

Desfibriladore gehiago Urnietan

Lehendik baziren kiroldegian, Elkarleen Etxean eta Udaltzaingoaren autoan. Bada beste bat BM supermerkatuan eta, berriki, Udalak bi gehiago jarri dituela iragarri du. Zehazki, herriko plazan eta Xoxokako eskolan. "Bihotz-biriketako geldialdiak bat-batean gerta daitezke edozein leku eta unetan, eta berehalako laguntzak biziak salba ditzake", dio Udalaren oharrak.



Ekimena gertutik ezagutzeko Mikel Ormazabal bertako erretorea eta Ana Belen Garcia organo-jolea bildu ditu Aiurri astekariak. AIURRI

Zaharberritzen ari dira Urnietako elizako organoa

Zaharberritzen ari dira Urnietako San Migel Goiaingerua parrokiako organoa eta gastuei aurre egiteko laguntza eskatu dute. Musika-ondare preziatuari eusteko ezinbestekotzat jo dute herritarrengatik jotzea

Xabier Lasa URNIETA

Organoa zaharberritzeko kanpainari begira zabaldutako eskuorrian adierazten denez, babesleek 25 euroko ekarpena egin dezakete. Transferentziaren

bidez, Kutxabankeko ES48 2095 5068 68 1062373732 kontuan egin daiteke. Era berean, dohaintza aurrez aurre (gutun-azalean) edo bizum bidez egin daiteke, 10905 telefonoaren bidez.

Dohaintza guztiek ziurtagiri bat jasoko dute, errenta-aitorpenean kenkariak aplikatzeko aukera ematen duena (%80ko kenkaria dohaintzan emandako lehen 150 eurotan; %35eko ken-

karia gainerako zenbatekoetan). Biziberritzen ari diren San Migel Goiaingerua parrokiako organoaren gainean mintzatzeke Mikel Ormazabal bertako erretorea eta Ana Belen Garcia organo-jolea bildu ditu Aiurri astekariak.

Mikel Goiaingerua parrokiako organoa zaharberritzen ari dira azken aldian, eta horretarako diru bilketa kanpaina abian jarri dute “Babestu tutu bat 25 euroren truke” leloarekin. Kanpainaren ardura bere gaia hartu duen Mikel Ormazabal erretorea eta Lourdes Iriondo Musika Eskolako zuzendari eta organo-jolea den Ana Belen Garcia Urnietako organoaren balioaz eta bere zaharberritzeaz mintzatu dira Aiurriarekin.

Kulturaren eta historiaren ikuspegitik balio handiko organo horrek zerbitzu paregabea eskaintzen diola herri osoari adierazi dute; nolanahi ere, bere egungo egoera ikusita, ziurtatu dute bideraezin egiten zuela bere erabilera etorkizunean.

Cavaillé-Coll organoa

Parisen XIX. mendean tutu-organoak egin zituen Cavaillé-Coll

etxekoa da Urnietako organoa. Ana Belen Garciak bere jatorria ikertu du, “badira zenbait agiri eta katalogo artxiboan, baina datu kontraesankorrek ematen dituzte beraien artean. 1864koa dela esan daiteke. Argi dagoena da balio handiko Cavaillé-Coll bat dela”. Gipuzkoan antzeko organoen paradisua dela eta mordoa topa daitezkeela hantemen, ziurtatu du Garciak.

Izan ere, ederki asko ezagutzen ditu Gipuzkoako elizetako organo gehienak Garciak. Nahiko ohikoa da berarentzat organo-kontzertuak ematea; urrutira gabe, uztailaren 19an, Ataungo organo barrokoaren nazioarteko XIX. jaialdian parte hartuko du; Ines Osinaga (trikitia) eta Garazi Eguigurenekin (dantzaria) batera egingo du emanaldia, Ataungo elizan. Loiolako (Donostia) Iesu elizan, abuztuaren 8an, berriz, Iñaki Etxepare (biolontxelo) izango du bidelagun, Musika Hamabostaldiaren baitan.

Garciaren esanetan, “XIX. mendeko erromantizismoaren mugimendu artistiko eta ideologikoak jarraitzaile ugari izan zituen Euskal Herriko musika-gintza klasikoan, eta horren eraginez daude hainbeste organo erromantikoak gure herrialdean. Tamainari begira, Urnietakoa txikia da, 54 notako eskuzko teklatura eta 13 notako pedalekoa dauzka. Antzekoak daude Alegian, Pasai San Pedron, Altzan...”.

Etorkizunean ezin erabili

Organoaren egoera ikusita (pipiak jotako altzaria, tutu baten falta, teklak egoera penagarrian...), etorkizunean bere erabilera bideraezina egingo zela argi eduki dute, Mikel Ormazabal adierazi duenez. “adituekin kontsultatu genuen, organo-joleekin eta organoak goitik behera ezagutzen dituzten organeroekin batez ere, zaharberritze prozesuari ekin aurretik, kontuan hartuta zer nolako kultur eta musika ondarearen aurrean gauden”.

Pipiak jotako egurrezko altzaria txukuntzea izan da eman duten lehenbiziko pausoa, organoarekin zaharberritze prozesuari ekin aurretik. “2024ko azaro-abenduan, enpresa profesional batek anoxia izeneko desinfektatze prozesua aplikatu zion, hilabete bateko epean. Organoa burbuila batean sartu,

eta nitrogenoa txartatu zioten; era horretan, lortu zuten oxigenoa kentzea eta pipiak akabatzea”.

Lanketa horrek eragin zuen kostu ekonomikoari zein gero-
ra etortzekoa zen zaharberri-
tzearen kostuari aurre egiteko,
“Babestu tutua bat 25 euroen
truke” kanpaina abian jarri
zuen parrokiak 2025ean. “Au-
rrekontu bat baino gehiago
eskatu zen, eta berriz ere orga-
noa adituekin kontsultak egin
ostean, Alejandro Turanzas
organeroaren esku utzi da orga-
noaren zaharberrikuntza”.

80 mila euroko kostua du orga-
noa berritzeko ekinaldi guz-
tiak. Martxa onean doa diru
bilketa, Ormazabalen hitzetan.
“Oso pozik gaude herritarrek
ematen ari diren erantzunare-
kin, eskertzekoa da benetan
jendearen eskuzabaltasuna.
Iazko Gabonetan egin genuen
saskiaren zozketarekin ere,
harrigarria izan zen herritarren
parte-hartzea, hamar mila euro
bildu baikenituen. Bestalde,
Gipuzkoako Aldundiari gure
proiektua aurkeztu genion, adi-
tuek egindako txosten teknikoa
erantsita; egokia ikusi zuten
zuen, eta gastu guztiaren erdia
bere gain hartzeko konpromisoa
eman digu”.

Organo-jole amorratu gisa,
Garcia oso pozik agertu da Ur-
nietako Mikel Goiangerua pa-
rrokiako organoaren egitasmoa
dela eta. “Ekintzailea da Mikel,
eta aitortu behar da bere eki-
menari esker doala aurrera
egitasmoa”. Elizetako organoen
egoerarekin jakitun den heinean,
txalotzekoa dela jokabidea, gehi-
tu du. “Ekimen eredugarritzat
joko nuke Urnietakoa, ikasgarria
egoera berean dauden beste
parrokientzat”.

Organoaren armonizazioa

Zaharberritze prozesua San
Migel jaiak igaro ostean, urria
aldera hasiko dela aurreikusit-
a dago, eta urte erdiz luzatuko
da.

Mekanika konplexu batek
osatzen du organoa, elementu
asko mugiarazten dira teklatu
bat zapaltzen den bakoitzean.
Konponketa partikularra eska-
tzen dute elementu ugari horiek,
eta funtsean, organoak jatorrian
eduki zuen soinua berreskuratu-
zea da lortu nahi dena lanke-
tarekin, Ormazabalek eta Gar-
ciak ziurtatu dutenez. “Tutuak



Parisen XIX. mendean tutu-organoak eraikitzen espezializatu zen Cavallé-Coll etxekoa da Urnietako organoa. AIURRI



2024ko azaro-abenduan, enpresa profesional batek anoxia izeneko desinfektatze prozesua aplikatu zion organoari, hilabete bateko epean. Organoa burbuila batean sartu, eta nitrogenoa txertatu zioten; era horretan, lortu zuten oxigenoz hustutzea eta pipiak akabatzea. MIKEL GOIANGERUA PARROKIA

ospakizun berezi batekin egin-
go dela zirutatu du Ormazaba-
lek. Garcia ere desatzen dago
noiz iritsiko den egun hori
organo berritua probatzeko, eta
batik bat, 54 notako eskuzko
teklatuari eta 13 notako peda-
lekoari azken urtetan atera ezin
izan dizkion soinuak entzuteko
eta entzuleei entzun arazteko.

Azken urtetan elizkizunetan
normalki organoa jotzen aritzen
diren Myriam Ulanga eta Iñigo
Ganuza musikariek ere biziki
eskertuko dute soinu biziberri-
tze hori.

San Migel Goiangeruaren pa-
rrokia herrira zabaltzeko gogoz
dabil Ormazabal Urnietara
2023ko irailean etorri zenetik,
eta horren erakusgarri dira
azken aldian bertan antolatu
dituzten abesbatzen eta dantza
taldeen emanaldiak. “Egia da
parrokia gune espiritual gunea
dela, baina kultur-gunea ere
izan liteke, zergatik ez?”.

Datorren udaberriarako bizi-
berrituta egongo den organoa
ere asmo horren barruan ko-
katzen du erretoreak. “Egia da
ezagutzen ez dena ez dela be-
netan estimatzen, eta hori ger-
tatzten da parrokiako organoa-
rekin ere, urnietarrek ez dute-
la aski ezagutzen, ez direla behar
bezala jabetzen herrian dauka-
gun aberastasunaz. Organoa
herriko kultur altxorra dela
senti dezaten lortu behar dugu”.

Alde horretatik, Garciak txal-
lotzen du Ormazabalek etorki-
zunerako daukan ikuspegia.
“Organoa oso moldaeraza da
beste edozein instrumentuekin;
edonolako formatua duten ema-
naldiak egin litezke. Pentsa
zenbat kontzertu gozagarri an-
tola litezkeen Urnietan dauden
musikari bikain askorekin ba-
tera!”.

moldatzeak eragiten du jato-
rrizko soinua, azken batean.
Eta horrekin, armonizazioa
lortzen da, organo baten jato-
rrizko xarma berreskuratzen
da, bere nortasuna, bere idio-
sinkrasia”.

Biziberrituz gero, egitasmoak buruan

Ondo bidean, 2027ko udaberrian
bukatutzat emango luke Ale-
jandro Turanzas organeroak
bere eginkizuna Urnietako or-
ganoarekin. Bere estreinaldia



Urnietako
udala

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bergarako alkateen mugimendua-
ren 50. urtemuga oroitzeko ekitaldia
egingo da, aste honetan, uztailaren
19an, Bergaran. Hilabete atzera
agerraldia egin zenuten EH Bilduko
eta EAJ-PNVko hainbat alkatek,
tartean zuek biak. Gernikako Batzar
Etxean egindako agerraldian zero-
rrek hartu zenuen hitza, Leire. EAJ-
PNVren eta alkate askoren irudia
gorpuztu zenuen. Zer sentitzen da
horrelako ekitaldi batean?

Leire Artola: Lehenik eta behin,
ardura handia. Udalak edo al-
kateok gara herritarrengandik
hurbilen gauden erakundeetako
ordezkariak eta hori dela-eta
erantzukizun berezi bat suposa-
tzen du. Egia da egunero sortzen
zaizkigun urgentziak edo arazoak
kudeatzen jarraitzen dugula,
baina noizean behin ona da be-
girada altxatu eta orain arteko
bide-orriari aitortza egitea. Eta
horrela ikusten dut nik Berga-
rako alkateen mugimendua.
Abertzale naizen aldetik uste
dut gure herriaren interesen
defentsa politika publiko guztie-
tan presente egon behar dela eta
horretarako herri bat gobernatu
nahi badugu herri hori ezagutu,
sentitu eta maitatu behar dugu-
la. EAJ-PNVko ordezkari naizen
aldetik errespetu osoz bizi dut.
Bizi nuen hori Gernikan eta
baita igandean etorriko dena.
Izan ere, 130 urtetik gorako ibil-
bidea duen alderdi baten orde-
zkari naiz, Euskadiren askatasun
eta autogobernuaren eraikitze
lan horretan apustu egin duena.
Nolabait, bagara egindako kate
horren oinordekoak. Bakoitzak
bere lekua bete du eta orain guri
dagokigu etorkizunari anbizioz
begiratzea.

**Zu ere bertan izan zinen, Andoni,
EH Bilduko alkateen ordezkari izan
parte hartuz. Zer nolako balioa du
"Alkateen mugimenduak?"**

Andoni Alvarez: Oraintxe Leirek
esan duen bezala, azkenean uda-
lak gara herritarrengandik ger-
tuen gauden administrazioa eta,
ondorioz, alkateak gara gertuko-
en dagoen figura hori. Guk uste
dugu balioa daukala udaletik
egiten den lana. Euskal Herriko
historian alkateek pisu handia
izan dute, besteak beste, duela
50 urte egin zen Bergarako eki-
taldi hartan bezala. Bada, guk
balioa eman nahi diogu udalgin-
tzari eta alkateen figura horri.
**Euskal Herriaren nortasun nazio-
nala, eskubide historikoak, udal
tradizio demokratikoa eta autogo-**

"Guri dagokigu etorkizunari anbizioz begiratzeara"

LEIRE ARTOLA, ANDONI ALVAREZ BEASAINGO ETA ANDOAINGO ALKATEAK
Autogobernua areagotzea aldarrikatu zuen 1976ko "Alkateen mugimendua"ak.
Asteburuan efemeridea aintzat hartuko da Bergaran. Han izango dira bi protagonistak



Leire Artola (EAJ-PNV) eta Andoni Alvarez (EH Bildu). AIURRI

**bernurako nahia aldarrikatu zen 50
urte atzera. Nola artikulatu daiteke
hori euskal erakundeetatik?**

L.A.: Pentsatu behar dugu ditugun
eskubide historikoak, erakundeak
edo autogobernua ez direla ka-
sualitatez sortu. Udalak, Foru
Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak,
Eusko Legebiltzarra, Batzar Na-
gusiak... autogobernuaren erai-
kuntza luze baten emaitza dira.
Egia da batzuen eta besteen
erasoak jaso izan ditugula eta
gure alderdia beti saiatu da era-
kunde horiek babesten, defen-
datzen. Bai, historikoki, eta bai
etorkizunari begira ere. Esango
nuke, gainera, autogobernua ez
dela hitz edo ideia abstraktu bat.
Egunerokoan ere autogobernuan
sakontzen saiatzen gara. Udale-
txeko atak irekitzen ditugunean,
zerbitzu publiko kalitatezkoak
eskaintzen ditugunean, gure
osasun sistema zaindu edota
euskal polizia eredu defendatzen
ditugunean, edota euskarazko
tokiko komunikabideak sustatzen
ditugunean gure autogobernu-
aren garapen edo lanketa bat
egiten ari gara. Guri dagokigu
jaso duguna defendatzea eta ba-
bestea, baina ez dugu ahaztu

**GOIERRI IRRATI
TELEBISTAN ETA
AIURRI.EUS GUNEAN
IKUSGAI DAGO
ELKARRIZKETA**

behar oraindik ere hainbat es-
kumen aitortu gabe ditugula eta
horiek eskuratu behar ditugula
gure autogobernua sendotzeko.

A.A.: Gaur-gaurkoz, Euskal
Herria 3 zatitan banatuta dago:
Iparraldekoa, Nafarroakoa eta
EAEkoa. Guk uste duguna da
bakoitzak bere erritmoan urra-
tsak ematen jarraitu behar du-
gula. Badago estatusaren ingu-
ruko elkarrizketa zabalik, eta
guk uste dugu badaudela bidea
egiteko aukerak eta arrazoiak.
Hala, alderdi ezberdinen arteko
elkarrizketa beharrezkoa dela
herri modura eta Euskal Herri
modura garapenerako norabidea
hartu ahal izateko.

**Ez dugu oraino esan, baina Andoaingo
batzar aretoan gaude. Gunea
nahita aukeratu dugu, akaso, denek
ez baitakite, Leire Artolaren sorte-
rria Andoaingo dela. Gazte zinetela
nekez irudikatuko zenuketen zuen
burua Andoaingo eta Beasaingo
alkate postuan. Eta hemen zaudete
milaka pertsona ordezkatzuz. Nola
irudikatzen zenuten udal politika-
gintza gazte zinetenean eta orain,
aginte postuetan zaudetela?**

A.A.: Udalarekin lehen harrema-
na pilota eskolako arduradun
gisa izan nuen, oso gazterik.
Orduan hasi nintzen harreman-
tzen edo ezagutzen orduko alka-
te eta zinegotziak. Eta onartu
beharra daukat oso urruneko
ikusten nituela hasiera hartan,
oso urruneko agintari edo per-
sona modura. Egia da sentsazio
sentimendu hori aldatzen eta
urteak pasatu ahala gerturatzen
joan dela. Saiatzen naiz gertuko
alkate bat izaten nik garai har-
tan sentitzen nuen distantzia
hori egungo gazteek eta ez hain
gazteek alkatearekiko ez dezaten
gauza berbera sentitu.

L.A.: Alkate izatea ez da nor-
berak erabakitzen duen zerbait.
Azkenean herritarrek erabaki
edo babesa ematen dizute eta
beraiek erabakitzen dute noiz
hasten den eta non egon den
zure ibilbidea. Andoaindarrak
naiz, hemen ditut nire sustraiak,
hemen daukat nire familia. Eta
txikitan gertutik bizi izan dugu
beti politika. Andonik esan du
berak urrunetik edo ezagutu
zuela, hasiera hartan. Nere aita
udal honetako langilea izan zen
lehenik eta, gero, jubilatutako
urrietik, zinegotzia. Eta beraz,
garai hartan, gure etxeko sukala-
dean asko hitz egiten zen poli-
tikaz, herrigintzaz. Udalgintzaz
asko hitz egiten zen eta, nolabait,

etxeko solasaldi horiek eta etxeko lanketa horrek erakutsi zidan politika dagoela herritarren eta herriari babesa edo zerbitzu publiko bat emateko.

Bientzat ere hurrengo galdera. Zer da alkate izateak duen alderik one-na eta ilunena?

L.A.: Ezbairik gabe, zailena, eskatzen duen dedikazio pertsonala. Astegunean zure udaleko martxa eduki dezakezu, baina ez dugu ahaztu behar asteburuetan herriko eragileek antolatzen dituzten kultur eta kirol ekitaldiak, landa eremuko eta auzoetako jaiak... Gure presentzia eskertzen dute eta hurbiltasuna eskaintzeko modu bat da. Beraz, dedikazio pertsonal horren ondorioz, familiarekin edo gertukoekin egon nahiko zenukeen edo pasa nahiko zenukeen beste denbora ez daukazu. Nire kasuan familiaren gertutasuna eta babesa beti sentitu izan dut eta hori eskertzen dut. Eta alde politena da politikak zure herritarren bizitza aldatzeko aukera daukala. Herrian bizi zara, herrian egiten dituzte erosketak, herritarrek askotan beraien beharrak edo kezak jakinarazten dizkigute eta haien bizitzan eragin positibo bat edukitzea oso onuragarria da. Horrek asebetetzen zaitu. Herritarrekin daukazuen erlazio estua oso garrantzitsua da.

L.A.: Leirek adierazi duenaren haritik nik ere balioan jarri nahiko nuke etxeko babesa. Azkenean alkate gu gara, baina ezin izango genuke izan alkate, ingurukoen babesik gabe. Izan bikotea, emaztea edo gurasoak... alkate izateko inguruko babesa behar dugu. Alderik politena, nire kasuan, litzateke herritarrekin sortzen den harreman hori. Nik askotan esaten dut herritarrek edo herritarrekin dudana harremanak ematen didala indarra. Eta alde iluna, berriz, administrazioaren erritmoa dela esango nuke. Askok uste dute alkateok badugula makil magikoa gauzak azkarra egiteko, baina administrazioak bere erritmoak ditu, errespetatu egin behar ditugu eta askotan zama bat da hori.

Alkateon artean, nahiz eta alderdi berekoak ez izan, enpatia handia sentitzen al duzue?

L.A.: Bai, noski. Nik esango nuke alderdi politiko bakoitzak bere proiektua daukala, eta defendatu egin behar duela; horri heldu



Biak andoaindarrak dira eta biak alkate. Leire, Beasainen. Andoni, aldiz, Andoainen. AIURRI

behar dio. Baina askotan herri guztietan erronka berdinak edo berdintsuak ditugu eta alkate bezala ondo ulertzen dugu elkar, enpatizatzen dut zentzu horretan. Behar ditugu guzti horiek gure kezak eta arazoak partekatze eta, askotan, beste herrietan erronka berdinen aurrean egin dutena ezagutzeko.

A.A.: Nik uste dut, oro har, alkateon arteko harremana ona dela. Leire eta biok ez gara askotan egon, baina egon garenean zintzoki jokatu dugu, bakoitzak besteari egoeraz kezkatu gara. Eta inguruko alkateekin ere antzera, beste alderdi batekoak izanda ere. Uste dut alkate zarenean badakizula besteak zein egoera bizi duen eta saiatzeko gara enpatizatzen.

Leire, Andoainera etortzen zarenean, zein sentimendu nagusitzen zaizu?

L.A.: Gertu bizi naiz eta, azkenean, ez da hainbesteko diferentzia

antzematen. Ibaian korrontean gora egin nuela esaten didate etxean, baina Andoainera etortzean etxera itzultzen naizen sentazioa daukat. Oso maiz etortzen naiz. Ama hemen bizi dut eta gertuko lagun eta eza-gunekin ere erlazioa mantentzen dut. Egia da Andoaingo gaiak gertutasunetik jarraitzen ditudala. Izan sare sozialak edo amaren etxera joatean. Txintxintxo gordetzen dizkit eskuorriak, triptikoak... Andoaingo gaien jarraipena egiten dut eta saiatzeko naiz egun kuttun horietan egoten. Horietako bat Santa Krutz eguna izaten da gure familiarentzat eta lanak uzten badit, behintzat, bertan izaten naiz.

Andoni, bazarete hainbat andoaindar herri gehiagotan alkate lanetan. Alkateen faktoria al da Andoain?

A.A.: Nik dakidala behintzat Gipuzkoan, alkate postuan 4 an-

doaindar gaude. Xabier Urdangarin, Astigarragan, Kristina Rodriguez, Adunan, eta gu biok. Nik uste dut Andoainen politika edo konpromiso politikoa sakon bizi izan dela azken hamarkadatan, eta horren isla da bertakoek bere bizitza beste herri batean jarraitu dutenean, konpromiso politikoa horrekin jarraitu izana. **Bakoitzak besteari plan bat egitea eskatuko dizuet. Leire, Andoni Beasainera eramango bazenu, zein plan proposatuko zenioke?**

L.A.: Andoni Beasainera eramango banu Beasain beasaindarraren kezka eta interesei erantzuteko herri gisa antolatuta dagoela erakutsiko nioke. Bertako kaleak, bideak, parkeak... Gainera, hori ditugu Usurbe eta Murumendi mendiak. Goierri, azkenean, Txindoki eta Aizkorriren begiradapean gelditzen da. Igartzako monumentu multzora ere eramango nuke. Bertan, XV. eta XVII. mendean eraikitako jauregia, burdinola, errota, ermita, zubiak ditugu besteak beste, eta hori esango dugu dagoela beasaindarraren ondare historiko eta kulturala. Gaur egun zaharberri egin da, duela hamarkada batzuk erortzearen zegoen eremu bat. Egia da, txukun-txukun dago eta bizi duen monumentu multzo bat da. Gero gure kaleetatik eramango zintuzket Beasaingo kaleetatik bertako merkataritza ezagutzeko. Ez dira garai errazak tokiko merkataritza-erantzako, baina ondo ikuste-

ko zein merkataritza daukagun Beasainen. Eta gero bazkarirako, gustatuko litzaidake bertako ekoizleek ekoiztutako barazki eta fruituekin, bertako haragia, gazta eta, nola ez, odolkia eskaintzea. Eta ia iluntzean eguna borobiltzeko, Loinatz ingurura gerturatuko ginake. Bertan Beasaingo irudi oso bat aurki baitezakegu. Beasain industrial eta naturalaren arteko oreka erakusteko guzti ezin hobea da.

Zer iruditzen zaizu plana, Andoni?

A.A.: Osoa esango nuke, konpletoa. **Zuk, Andoni, zein plan antolatuko zenioke Leireri?**

A.A.: Nik proposatuko nizkioke bi aukera ezberdin. Familiarekin edo lagunekin joateko planak dira. Deskonektatzeko planak izango lirateke. Lehenengoa laburragoa da. Lizarkolako pasealekutik abiatu eta Unanibiko zubitik Goiburura igo eta Txertotan hamaiketako egitea proposatuko nioke. Eta bestea, luzeagoa izango litzateke: Trentxikitik abiatu, Ubaran bailaratik barrena, Mizpiradira igo eta bertan otordua egin. Ingurukoekin eta familiarekin egiten ditudan planak dira. Iruditzen zait guk ere behar ditugulako arnaguneak.

Zer iruditzen zaizu, Leire?

L.A.: Biak ala biak interesgarriak. Ezagunak baina aspaldiko urteetan egin gabekoak eta seguru asko gozatu eta disfrutatuko nukeela.

Eskerrik asko Andoni eta Leire. Bergaran izango zarete asteburuan. Gernikan protagonismo berezia hartu zenuten, hilabete atzera. Zein mezurekin agurtu nahiko zenukete elkarrizketa?

L.A.: Duela 50 urte alkate talde batek izan zuen ausardia aldarrikatu nahiko nuke. Autogobernuaren defentsa edo nahi horretan behintzat guri tokatzen zaigu jasotako ondarea eguneratzea. Gure etorkizunari begira, ongizatea areagotuz eta etorkizun ambiziotsu horretan parte hartuz. Begira diezaiogun iraganari, baina batez ere, hartu dezagun konpromisoa etorkizunari begira.

A.A.: Leirek esandakoari gehituko nioke Bergararen tanke-erako ekimenak edo elkarrizketa honetakoak, zeinean alderdi ezberdinetako bi alkate solasean ari garen, giro onean... topaleku gehiago beharko genituzke herri modura ere urratsak eman eta aurrera egiteko.



Grabaketa-saioa astearte arratsaldean egin zen, Andoaingo pleno aretoan. AIURRI



Oier eta Nagore SEGA elkarteko kideak dira. AIURRI

"Nahi duen oro etor dadila, baina errespetuz eta euskaraz"

NAGORE ORMAETXEA, OIER JAUREGI SEGAKO KIDEAK

San Inazio egunez Oilasko-jokoa egingo dute; San Esteban egunez, egun osoko ospakizuna; eta, parrandarako tarte, berriz, abuztuaren 7tik 9ra izango da

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Goiburu auzoko Sanestebanak iristeak dira. Nola doaz lanak? Gauza asko falta al dira lotzeko?

Nagore Ormaetxea: Egitarauari dagokionez, ezetz esango nuke.

Gure barne antolaketan, berriz, gauza batzuk falta dira, edariak eta horrelako gauzak. Gainera, koan, programazioari dagokionez, xehetasun guztiak lotuta ditugu.

Oier Jauregi: Afarietako tiketak saltzea eta etorriko den jende kopuru zehatza jakitea falta zaigu, baina hori astebete falta denean jakingo dugu zehaztapen handiagoarekin.

Beranduago dira aurreko jaiak. Beldur al diozue horri, akaso jendea kanpora joana izango delako?

N.O.: Egia da gure artean komentatu dugula. Baina, saiatu gara egitarau erakargarri bat antolatzen, eta espero dugu hemen geldituko direnak festetara etortzea.

O.J.: Egia da jende gutxiago baldin badator agian lasaia izango dela, eta zentzu horretan, guretzat errazagoa izango dela. **Uztailaren 31 zuen eguna da. Oilasko biltzaileen eguna ospatzen duzue. Nolako izaten da eguna? Akaso zuen festa kuttunena da?**

N.O.: Auzotarrontzat gure eguna dela uste dut. Beste egunetan ere gozatzen dugu, baina lan gehiago egitea ere tokatzen zaigu. Oilasko-jokoan, aldiz, zirrar berezi bat sortzen du, bai parte hartzaileontzat, bai baserrietan bizi den jende helduagorentzat.

O.J.: Bai, goizeko bostetan plazan gelditzen gara, "itxaferua" botatzen dugu, eta horren ostean, baserri baserri joaten gara arin-arina eta fandangoa dantzatzeko, eta amaieran, plazan, bazkaria antolatzen dugu.

Zein ekitaldi duzue gogoko zuetakoren bakoitzak?

N.O.: Auzotar bezala, Oilasko-jokoa da gehien gustuko dudana. Baina, plaza betetzeko dantza maratona oso polita izaten da, eta larunbateko afaria eta horren aurretik dauden kontzertuak ere. Oro har, plaza beteta ikustea oso polita izaten da.

O.J.: Bai, jende gehiena gaueko kontzertuetara etortzen da.

Iaz jende asko hurbildu zen festara. Aparkalekuak, garraio publikoa... hori ere antolatu behar da. Lotuta dituzue xehetasun horiek?

N.O.: Bai, aurreko autobusa aterako da herritik, eta aparkalekuak ere antolatuko ditugu. Bestalde, eskertzen dugu jendeak autobusa hartzea, izan ere, ez daukagu aparkaleku handirik, eta lasai gozatu ahal izateko, bizilagunentzat erosoagoa da jende gehiena autobusean igotzea.

Aurtengo egitarautik zer nabarmenduko zenukete?

O.J.: Gaueko kontzertuak nabarmenduko nituzke. Ostiralean Gabezin egongo da urtero bezala, eta larunbateko erromerian Bide Batez taldea arituko da.

N.O.: Berrikuntzak ere izango dira aurreko urteetako jaiekin alderatuta. Esate baterako, larunbat goizean Txakolin dastaketa izango dugu. Horrez gain, dantza maratona urtero zirrar handia sortu ohi du.

Zein ekitaldi berri daude? Baten bat geratu da bazterrean?

N.O.: Berrikuntza gisa, aipatu dudana Txakolin dastaketa, eta larunbat arratsaldean orain arte gure artean eta beste auzo eta herri batzuen aurka desafioa egiten genuen, eta aurreko hori alde batera utzi dugu. Horren ordez, Txinga txapelketa antolatu dugu, eta hori izango da berrikuntzetako bat. Orain arte, desafioarekin nahiko justu ibiltzen ginen, eta guk ere gozatzen aukera izateko erabaki hori hartu dugu. Bestalde, jendea animatu nahi dugu Txinga txapelketan parte hartzera.

Antolaketa taldean jende asko antzematen da. Belaunaldi aldaketa egon da tartean. Hori berez ona da. Nola banatzen dituzue ardurak?

O.J.: Pandemiaren ostean errelebo esanguratsua egon zen, baina azkeneko urteetan ez da aldaketarik egon.

N.O.: Bai, azkeneko urteetan ez dela errelebo handirik egon. Gazteenei ardurak ematen saiatzen gara haiek ere parte direla senti dezaten, eta egia da zenbait postu jarri dituztela



Gau giroa, aurtan, abuztuaren 7tik 9ra nagusituko da. AIURRI

haiek egindako gauzeekin, eta errifak ere saldu dituzte, baina belaunaldien arteko erreleboari dagokionez, ez da aldaketa handirik egon, oraingoz.

Zuen txosnan, gainera, otorduak ematen dituzue. Horrek balio erantsia ematen dio jaiari. Gainera, oso jaki goxoak prestatzen dituzue.

N.O.: Ostiral eta larunbat gauean Euskal Parrilak prestatutako afaria izaten dugu, ostiralean guk zerbitzatzen dugu, eta larunbatean, haiek. San Esteban egunean, hamaiketako, bazkaria eta afaria ematen dugu, abuztuaren 3an guk sukaldatzen dugu: kroketak, piper beteak, eta parrilan egindako saiheisa eskaintzen dugu. Larunbatean ere, eguerdian guk egindako bazkaria jateko aukera egoten da, eta igandean, bazkaltzeko eta afaltzeko aukera.

Ze hitzekin gonbidatuko zenituzkete herritarrak festara hurbiltzeko?

O.J.: Herriko jendeari igotzeko esango nieke, urtero oso ondo pasatzen dugu, eta aurtan ez da gutxiago izango.

N.O.: Bai, euskaraz eta euskal giroan gozatzeko festak dira, eta herritar guztiak animatzen ditugu igotzera, baina ez baldin badakite "egoten", beti esaten dugu ez igotzeko. Ez dugu lis-karrik nahi; giro onean gozatu nahi dugu auzoko jaiez. Nahi duen oro etor dadila, baina errespeta eta euskaraz.

"TXAKOLIN DASTAKETA ETA TXINGA TXAPELKETA DIRA AURTENGO BERRIKUNTZAK"

GOIBURUKO SAN ESTEBAN JAIAK 2026



Jai-eremua, iazko jaietan. AIURRI

UZTAILAK 31

OSTIRALA OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

- 05:30 Oilasko-jokoko kuadrillaren buelta auzoan barrena.
- 15:00 Oilasko-biltzaileen bazkaria, plazan. Arratsaldean, plaza dantzak eta jolasa.

ABUZTUAK 3

ASTELEHENA SAN ESTEBAN EGUNA.

- 11:00 Jaiei hasiera emateko suziri eta kanpaiak.
- 11:30 Egun osoan, Andoaingo artisau azoka eta haurrentzako tailerra.

- 12:00 Meza ermitan Andoaingo Alberto Agirre abesbatzarekin. Ondoren hamaiketako plazan. Plazan bazkaltzeko aukera izango da.

- 16:30 Mus lehiaketa plazan. Izen ematea plazan bertan 16:15ean.

- 17:00-20:00 · Andoni Ollokiegiren kontzertua. Plazan afaltzeko aukera izango da.

ABUZTUAK 7

OSTIRALA

- 19:30 Kantujirako taldeak plaza girotuko du.
- 21:00 Auzo afaria frontoian. Menua: iberikoak, entsalada mistoa, txapoa parrilan, txerri

saiheskiak parrilan, Ezeizako pasteltxoak, kafea, kopa, purua. Txartelak salgai Txertotan eta Urratsen, uztailaren 31 arte (ostirala). Helduek 30, haurrek 15.

00:00-03:00 Gabezin taldearen kontzertua.

ABUZTUAK 8

LARUNBATA

- 12:00 Potx magoaren Zintzilik ikuskizuna frontoian.
- 12:00 Txakolin dastaketa plazan. Plazan bazkaltzeko aukera izango da.
- 17:30 Goiburuko I. Txinga lehiaketa. Makina bat sari zozketatuko dira.
- 17:30 Euskal Garagardo dastaketa Etxebesteren eskutik.
- 18:00-20:00 Sutargi erromeriaren kontzertua plazan.
- 21:00 Bertso afaria frontoian, Aitor Mendiluze eta Unai Agirrere bertsolariekin. Menua: entsalada mistoa, hegaluzea pistoarekin, oilaskoa parrilan, sorbetea. Txartelak txosnan bertan salgai ostiraletik aurrera.

00:00-03:00 Bide batez taldearen kontzertua plazan.

ABUZTUAK 9

IGANDEA

- 13:00 Goiburuko VII. pala txapelketako finalak; irekia eta herrikoia.
- 17:30-20:30 Goiburuko VI. erromeri maratoia.
- 17:30-20:30 Sagardo dastaketa plazan. Sagardotegiak: Mizpiradi, Gaztañaga, Irigoien, Petritegi, Zabala, Aburuza, Altuna, Oialume, Eguzkitza, Oianume, Alorrenea. Plazan afaltzeko aukera izango da. Afalondoren trikitilariak jotzen jarraituko dute indarrak amaitu arte.





Zumeatarra taldeko lagun talde handia aurtan, maiatzaren 1eko krolean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Etcheberrieta Jai Batzordeko Delan Irazu eta Zumeatarra kirol elkarteak Eva Pelaez eta Joxean Alberdi bildu dira berriki Kotoi elkartearekin, auzoko jaien baitan, uztailaren 31n, egingo zaien aitortzaren gainean mintzatzeko. Altuera jauzian Espainiako marka ezarri zuen eta Moskun 1980ko Olinpiadetan parte hartu zuen Roberto Cabrejas atleta zenaren oroitzapenezko XVII. krosaren ostean ospatuko da aitortza-ekitaldia.

Irazuk azaldu zuen auzoan zergatik dauden tematuta urtero herriko kirolari edo kirol talde bati gorazarre egiteko. “2008an Roberto Cabrejas krosa abian jartzearekin batera erabaki genuen herriko kirolari bat edo kirol talde bat omentzea. Gizonezkoen futbola ez zen beste kirolei erreparatzea jarri genuen erronka, hain zuzen. Emandako hitza ez dugu bete urtero, baina saiatu izan gara. Herrian apenas ezagutzen edo baloratzen ziren kirolariak (boxeolariak, emakume futbolariak, pilotariak, ziklistak, atletak...) ikusgarritasuna eman die Etcheberrietako jaiak, eta harro gauden horrexegatik”.

Roberto Cabrejas jaiak egin dakiokeen omenaldirik hobena dela filosofia horrekin jokatzeko, azpimarratu nahi izan zuen Irazuk. “Ezagutu genuenok ondo dakigu sekula ez zuela galdu jatorri herrikoia, eta ez daukagu zalarrik amorrazioak jota altxako

Etcheberrietarren omenaldia Zumeatarrari

Zumeatarra Kirol Taldeak jasoko du Etcheberrietako auzotarren aitortza, aurtengo jaietan. Lan isila baina etenik gabekoa izan da kirol talde horren jarduna Andoainean, azken ia mende erdian

litzatekeela lurpetik, ikusiko balu gizonezkoen futbola ari garela sustatzen, beste kirolak albo batera utzita”.

Gizartean, futbola ez diren beste kirolek, eta batik batik atletismoak, bizi duten gutxiespeneren adibidetzat jarri zuen Irazuk Real Sociedadekin gertatu dena azken hilabeteetan, “izugarria izan da saturazioa! Realak futboleko kopa irabazi zuela eta, ez genuen beste konuturik eduki asteetan komunikabideetan, jendearen arteko solasaldietan, etxetako balkoietan... Ederki nazkatuko zen futbolzalea ez dena! Bada, a ze kontraste mingarria gertatu den, izan ere, inork ez du jakin Real Sociedadeko atletismo taldeak

estatuko klubaren arteko kopa irabazi duela! Ez dakit zenbat garrengo orrialdean, lerro bakan batzuen eskutik agertu zen garaipenaren albistea prentsan!”.

Alberdik eta Pelaezek bat egin zuten Irazuren diagnostiko ezkor horrekin, futbola ez diren beste kirolek, eta bereziki atletismoak, gizartean jasaten dutenarekin. Alberdik hartu zuen hitza taldearen jokaera umila azpimarratzeko, “lan isila da gurea, egunerokoa eta konstantziaz betea. Laupabost eroan artean kudeatzen dugu taldea, baina gero jende ugari mugitzen dugu herrian. Ez gara oso saltzaile onak geure taldeko kideen kirol garaipenekin, eta maiz, badirudi ez dugula existitzen”.

Ibilbide oparoko kirol taldea

Zumeatarra Kirol Taldea atletismoaren jarduna andoaindarren artean sustatzen ahalegindu dela urtetan eta urtetan, lan isila baina eraginkorra egin duela, eta ibilbide hori ez dela behar bezala baloratu, azpimarratu zuen Irazuk Kotoi elkarteak.

Egiazki, baloratzeko moduko ibilbidea deskribatzen digun datuak eman zituzten Eva Pelaezek eta Joxean Alberdik solasaldian. Hasteko, gogoratzekoa da bereziki, nola orain ia mende erdia Bixente Huizi eta Pakitin Arnaiz korrikalariak abian jarri zuten atletismoko sekzioa, Zumeatarra elkarte gastronomikoaren baitan. Hastapeneko urtetan, besteak beste, gaur egun

Gipuzkoan zaharrena den krosa hasi ziren antolatzen, Santa Krutz jaietan. Eta aldi berean, herriko gazteen artean ere atletismoa sustatzen aritu ziren.

Ondorengo urtetan, Joxean Alberdi ere sartu zen klubaren kudeaketan, eta Bixente Huizi hil zenean 2009an, Arnaizek eta biak arduratu ziren klubaren jarraipena ziurtatzeaz.

Bere ibilbidean, unean-unean kirolaren munduak bizi duen etengabeko eboluziora egokitzen jakin izan du taldeak, eta horrexegatik iraun du gaur arte. Horrela, batik batik lehiaketetan parte hartzen zuten maila handiko atleten kluba izateari utzi zion, eta ateak ireki zizkien korrikalari herrikoiei eta horien premiei, korrika egitearen ariketa fisikoa herrikoitu eta sozializatu nahirik.

Orain 25 bat urte, bertako bazkide diren Javi de Miguel eta Imanol Arrutiren ekimenez, triatloia- ren atala sortu zuten. Geroztik, triatloiko kirolariak eta gainerako korrikalariak esker, munduko hainbat lehiaketetan zabaldu izan dira Zumeatarraren eta Andoaingo herriaren izenak. Urrutira gabe, Ander Lazkanok, Javi Mentak eta Borja Barraquek osatutako Zumeatarra taldea Bartzelonan hirugarren geratu da berriki, Espainiako maratoko taldekako txapelketan.

Bestetik, badira hogeita bat urte gaztetxoei bideratutako atletismo eskola sortu zutenetik, Alberdi eta Pelaezen eskutik. Gaur da eguna, sekula baino indartsuago dagoela eskola. Pelaezen hitzetan, “50 bat neska mutiko etortzen dira eskolara, astean bitan. Eskola Joxeanek eta biok zuzentzen badugu ere, monitore gisa aritzen diren boluntario ugariaren eskuzabaltasunari esker funtzionatzen du. Datu azpimarragarria eta pozgarria da azken urtetan lehiaketetan Zumeatarraren izenean parte hartzen ari garela”.

Ekimen berrien atalean, aipatzekoa ere bada korrika hasi nahi dutenen emakumei begirako taldea are sortu zutela orain pare bat urte, Maria Rengelek gidatuta.

Bestalde, nahiz eta sail berezirik ez egon taldean, zenbait bazkide mendi lasterketetan aritzen dira Zumeatarraren elastikoa jantzita.

Azkenik, ezin ahaztu iaz abian jarri zuten Andoaingo Duatloia.



Irazu, Pelaez eta Alberdi, Etxeberrieta plazan. AIURRI

Bi edizio besterik egin ez badi-tu ere, ezinbesteko hitzordua bilakatu da hainbat duatloi za-leentzat.

Gaur egun, honako bazkideek osatzen dute taldearen zuzenda-ritza batzordea: **Axier Etxezarreta, Iker Alkain, Javi Menta, Koldo Velasco, Jon Imaz, Joxean Alberdi, Maria Rengel, Eva Pelaez eta Aitor Sarasola**.

Ehun bat bazkide-kirolarik osatzen dute taldea, gaur egun. Guztiek ere, entrenamenduen planifikazio pertsonala presta-tzeko zerbitzua erabili dezakete.

Hasierako filosofiari eutsita

Pelaezek eta Alberdik Kotoi elkarteko bilkuran nabarmen-du zutenez, Zumeatarra Kirol Taldeak prest jarraitzen du kirolen munduak bizi duen di-bertsifikazioaren zein kirolariaren premiei erantzuteko. Hori bai, ez dute galdu nahi bere sorre-ratik Huizik eta Arnaizek tal-deari itsatsi nahi izan zioten filosofia, atletismoaren sustapen herrikoian eta herriaren zerbi-tzari izatearen bokazioan oina-rritzen dena.

Biek ere aitortu zuten talde sendo eta ondo egituratuaren irudia transmititzen duela Zu-

meatarra Kirol Taldea gaur egun, eta hori taldeko kideen eta in-guruan dauzkaten kolaboratzaile-en eskuzabaltasunari eta kon-promisoari esker dela. Egia esan, irudi hori, batik bat, Santa Krutz jaietan taldeak antolatzen dituen helduen zein haur krosetan, edota, azken bi urtetan Andoaingo Duatloi proban ikus daiteke. Hori egia izanik ere, Alberdik ohartarazten duenez, "jendearen boluntarismoa du oinarri taldeak, eta dohain horrek kito egiten duen egunean, ikusteko dago nork hartuko duen atletismoaren lekukoa Andoaingen".

Azken hamarkadetan eginda-ko ibilbideari atzera-begirakoa eginez gero, atletismo eskolare-kin sentitzen dira harro berezi-ki, biak. Pelaezen hitzetan, "edonor hartzen dugu eskuza-balik, kirolerako dohainak edu-ki ala ez. Kirolaren kultura eta lagun-giroa sustatzen dugu, ahaztu gabe bakoitzaren poten-tzialtasuna lantzea. Azken ur-tetan talde gisa lehiatzen hasi gara Gipuzkoa mailan, eta kirol emaitzen gainetik, baloratzen dugu zeinen pozik ibiltzen diren, eta zer nola bizi duten talde-sentimendua, Zumeatarrako elastikoa jantzita".

"BOLUNTARIO UGARIREN ESKUZABALTASUNARI ESKER AURRERA DOA ATLETISMO ESKOLA"

"KIROLAREN KULTURA ETA LAGUN-GIROA SUSTATZEN DUGU ZUMETARRA ATLETISMO ESKOLAN"



Alaiki taldeak girotu zuen Kaletxikiko jaien azken eguna eta gauza bera egingo dute Etxeberrietan. AIURRI

ETXEBERRIETAKO JAIK 2026

UZTAILAK 30

OSTEGUNA

- 17:30 Txupinazoa.
- 18:00 Txokolatea, Kotoi elkartean.
- 18:00 Marrazketa lehiaketa.
- 19:00 Patata Tropikala haur antzerkia, Etxeberrieta plazan.
- 20:00 Patata-tortilla lehiaketa.
- 20:30 Danborrada.
- 22:30 Xsakara Bermeoko musikariaren zuzeneko emanaldia. Ondoren, musika-festa: DJa eta karaokea.

UZTAILAK 31

OSTIRALA

- 10:00 Pasakallea, Olagain Txistulari elkarteko kideekin.
- 10:00 Meza Santa Krutz elizan, Alberto Agirrek abestuta.
- 10:00 Kros herrikoia XVII. Roberto Cabrejas memoria. Ondoren, Zumeatarra Kirol Taldeari omenaldia.
- 10:30 Goiburuko oilasko-biltzaileei harrera.
- 11:30 Beñat Fernandez "Pelontxu"ren moto-erakustaldia.
- 12:00 Kantu kalejira.

14:00 Herri bazkaria, zikiro-jatea. Besteak beste, omenaldi ekitaldia, zozketak. DJrekin musika... Txartelak: Itxaso eta Txalaka tabernak.

20:00 Sardina-jatea.

20:00 Toka txapelketa.

22:00-03:00 Disko-festa Nemux DJren eskutik.

ABUZTUAK 1

LARUNBATA

- 11:00 Haur jokoak eta tailerrak, Etxeberrieta plazan.
- 16:00 Mus txapelketa Kotoi elkartean.
- 18:00 Sagardo dastaketa, Etxeberrieta plazan.
- 19:00 Zumba erakustaldia, Zumbalokura taldearekin.
- 20:30 Afari-merienda, Miranda pasealekuko zelaian.
- 22:30-03:00 Alaiki taldea.



Pintxo eta sagardo-dastaketa, igandean. AIURRI



Karrikak elizarik ez daukanez, San Julioaren bedeinkapenarekin egiten dira jaiak.



Got Talent Karrika eta Play-backa igande arratsaldean egin zuten. AIURRI

Auzo-bizitza indartzeko jaiak

Bi gau, hiru egun. Horixe izan da Karrikako jaien iraupena. Tartean, auzo-bizitzari bizipoza eman dioten hainbat hitzordu: rock kontzertua, sagardo eta pintxo lehiaketa, play-back emanaldia...

Erredakzioa ANDOAIN

Asteburu beroa izan da eta, sute-arriskua tarteko, azken trakarako iragarrita zeuden artifiziozko suak bertan behera utzi zituzten. Espero gabeko amaiera izan arren, Jai Batzordeko kideek poza eta eskerrona adierazi zuten jaiak amaitu berrikan: "Biharamun emozionaleko eguna. Eskerrik asko bizilagunei, saltokiei eta Andoaingo Udalarri hainbeste laguntzeagatik beti! Hurrengo urtera arte!". Ez zaio antolatzaile-taldeari, beraz, indarra ahitu eta dagoeneko

2027koan pentsatzen ari dira. Seinale ona da hori.

Ostiral arratsaldean, jaien hasierako suzirako, auzotar ugari hurbildu ziren txosnagunera. Eta, gauean, ohitura berriari segida emanez, rock doinuak nagusitu ziren.

Larunbatetik azpimarratu behar dira otorduak eta haurrei bideratutako hitzorduak.

Igandea egun handia da Karrikako jaietan: meza, sagardoa eta pintxo-dastaketa. Hori gutxi ez eta toka txapelketa, eguerdian, eta mus txapelketa, arratsaldean.

Kantua, dantza eta showa

Igande arratsaldean iritsi ohi da Karrikako jaietan bereizgarri den Play-back saioa. Eta horren osagarri, Got Talent Karrika saioa. Antolaketatik aukera askea eta libreka sustatu zuten. Hala, oro har, kanturako, dantzarako eta ikuskizunerako tartea izan zen. Oholtzan izar bilakatu zirenen artean Manolo, Silvia eta Ana auzotarrak aipa daitezke. Txalo zaparrada jaso zuten. Jaietako hitzordu nagusiak bideoz eta irudiz jasota daude Aiurri.eus webgunean.



DJ Donosok girotu zuen igande arratsaldea. AIURRI



Karrikako txosna eremua, jaien hasieran. AIURRI



Igande arratsaldea girotzeko Play back emanaldia antolatu ohi dute Karrikan. AIURRI



Manoloren partaidetzarik gabe ez litzateke Play-back emanaldia berdina izango. AIURRI



Play-back saioko sari-banaketa ekitaldia. AIURRI



Lau onenak, oholtza gainean. AIURRI

Mus eta toka txapelketak

Karriko azken jai-egunean, mus eta toka txapelketak jokatu zituzten. Musean, Martxunbe-Igon bikoteak jantzi zuen txapela, Urko-Luisma bikoteari finalean irabazi eta gero. Jose Mari-Juan Miguel hirugarren geratu ziren, eta Mari Mar-Aintzane laugarren. Tokan, berriz, Nekane Etxeberria izan zen finena fitxekin.



Bi urtez jarraian onena izan da Nekane Etxeberria. AIURRI



Etxeberria, aurtengo toka txapelketan. AIURRI

DATOZEN HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

KONTZERTUAK

URNIETA La otra calle

Zuzeneko musika, kalean.

20:00, *Santa Leokadia* parean.
Uztailak 17, ostirala.

ANDOAIN Que Django nos perdone

Irazu, Luserreta... jende ezaguna.

13:00, *Ganbara taberna*.
Uztailak 19, igandea.

ODOL EMAILEAK

URNIETA Odol-emaileak

Hitzordua telefonoz hartzea
komengarria da: 943 007 885.

16:30-20:30, *Gaztelekua*.
Uztailak 16, osteguna.

JAIK

ANDOAIN Sanrokeak

Aurten, asteburuan dira jaiak.

Buruntza.

Abuztuak 15 eta 16.

ANDOAIN Sorabillako jaiak

Abuztuko azken asteburuan.

Abuztuak 28, 29 eta 30.

UDAGIROAN

ANDOAIN Hainbat hitzordu**ZINEMA KALEAN****Como entrenar a tu dragon**

Filma gaztelaniaz izango da.

Uztailak 16, osteguna.
19:30, Goikoplaza.

Xsakara

Uztailak 30, osteguna.

22:30, Etxeberrieta plaza.

Los Zopilotes Txirriaos

Abuztuak 29, larunbata.

Sorabilla.

IPUINGIRO

Ispiluak, Dorleta Kortazar.

Uztailak 21, asteartea.

19:00, Leizaur parkea.

IKUSZIRKUS

Anonima, Vaiven Circo.

Irailak 18, ostirala.

19:30, Bastero.



Garazi Esnaola eta Gartzot Unsain. OARSOALDEKO HITZA

ANDOAIN Kontzertua**Gartzot Unsain, Garazi Esnaola**

Uztailak 18, larunbata. 18:30, Otieta parkea.

Bisitarien etxearen aurrealdean.



Oihana Maritorea eta Andoni Agirregomez korta. TXALO

URNIETA Tigrea

Coach baten eta argazkilari baten arteko gorabeherak umorezko antzerki emanaldian. "Zoriona bizio txarra da", dio antzezlanaren goiburuak. Aktore lanetan ariko dira Andoni Agirregomez korta eta Oihana Maritorea. Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean ariko dira. Txalo konpainiaren obra berriena da.

19:00, *Sarobe*. Abuztuak 4, asteartea. 19:00. *Sarrera: 7 euro*.

HAUR IKUSKIZUNA**"Zintzilik", Potx Magoa**

Abuztuak 8, larunbata.


12:00, Goiburu auzoa.

BAKARRIZKETA**"Simpol", Maria Cruiskshank**

Abuztuak 15, larunbata.

19:30 Buruntza auzoa.

ZINEMA

**ANDOAIN****ZINEMA KALEAN****Como entrenar a tu dragon**

Osteguna, 16.
19:30. Goikoplaza.

SINOPSISIA

Como entrenar a tu dragon

Zuzendaria: Dean DeBlois. **Gidoia:** Dean DeBlois, Cressida Cowellen liburuan oinarrituta.... **Hizkuntza:** Gaztelaniaz. **Generoa:** Zientzia-fikzioa. **Iraupena:** 119 m.

Zinema kalean zikloaren hirugarren eta azken filma

Mema uhartean bikingoek eta herensugeek etsaitasun mingotsa izan dute belaunaldiz belaunaldi. Hipo mutikoa besteetatik ezberdina da. *Desdentao* izeneko herensuge beldurgarriaren lagun egin da, gainera. Bien arteko harremanak herensugeen benetako izaera argituko du, bikingoen gizartearen oinarriak ezbaian jarritz. Astriden eta Boconen konpainian, Hipok beldurrak eta ulertezintasunak zatitutako mundu bati aurre egiten dio.



Leitz txirrindulari taldearen 25. urteurrena ospatzeko deialdia

Andoaingo Leitz Kirol eta Kultur Elkartearen 25. urteurrena aurten betetzen dela eta, bere bazkide, bazkide ohi eta laguntzaileekin bazkaria antolatu dute urriaren 31n. Zuzendaritza batzordeak zabaldu duen oharrean, zera adierazi dute: "Gure artxiboetan ditugun email guztietara mezu bat bi-

dali dugu xehetasun guztiak emanez, bazkarira etor daitezten.

Leitzen ibilitako norbaitek mezu hau jaso ez badu eta bazkarira etorri nahi badu, jar dadila harremanetan gurekin leitzmendibizikleta@gmail.com helbidera mezu bat bidaliz, ez dugulako inor ahaztu nahi".





Ika Fernandez eta Julian Lopez, Sorabillako jaietan. AIURRI

Urrezko ezteiak ospatuko dituzte uztailaren 17an

Ika Fernandez eta Julian Lopez andoaindarrek etxekoekin batera ospatuko dute urrezko ezteia, asteburu honetan

Erredakzioa ANDOAIN


50 urte atzera ezkondu ziren, garai hartan, Milagrosako mojek kudeatzen zuten Irigoienazpikoako zaharren egoitzan. Bertako elizan egin zen ospakizuna eta Iñaki Albistur Andoaingo

apaizak zuzendu zuen elizkizuna. Lizar Makil dantza-taldeko kideek agurra dantzatu zieten. Asteburu honetan ospakizun berezia dute, beraz. Zorionak! Sorabillako Jai Batzordean lan handia egindakoak dira biak.



1976ko uztailaren 17an ezkondu ziren Milagrosako etxean, Ama Kandida etorbidean dagoen Irigoienazpikoako etxean. LOPEZ FERNANDEZ SENDIA

ZORION-AGURRAK



URNIETA Izaskun
Izaskun, zorionak! Hilaren 22an 11 urte beteko dituzu! Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.



ANDOAIN Ur
Uztailaren 10ean 10 urte bete zituen etxeko gaztekoak. Ondo pasa udalekueetan! Etxekoak.



ANDOAIN Onintza
Onintzak 10 urte beteko ditu abuztuaren 2an. Segi beti bezain jator. Muxuak. Etxekoak.



ANDOAIN Itxaso eta Eñaut
Zorionak bikote! Itxasok uztailaren 23an 10 urte eta Eñautek uztailaren 27an 14 urte beteko dituzte. Jarraitu oinarte bezain jator, ondo ospatu zuen egunak eta ondo pasa oporretan! Muxu erraldoi bana amona, aitona, izeba, osaba eta Aian partez!

Andoaingo Udalak Bultza Andoain deialdia aurkeztu du

Negozio berriak sortzea eta jarduerak eskualdatzea (20.000 euro), lokal hutsak aktibatzea eta co-workinga sustatzea (15.000 euro), digitalizazioa (20.000 euro), trantsizio ekologikoa (10.000 euro) eta irigarritasuna (5.000 euro). Dirulaguntzak eskatzeko epea urriaren 31n amaituko da. Informazio gehiago: tokigarapena@andoain.eus edo 943 304 221.

HERIOTZ-OHARRA



Fco. Javier Azanza Garmendia



Guk gazte gaztetatikan elkar ezagutu genduan, geroztik zenbat jaietan giñan elkarrekin onduan bluxa txuri-berdekin eta txapela buruan. Rantxerak eta Mexiko

disfrutatzen munduan, alaitasuna ta poza seguru daude zeruan. Lagun asko uzten dituk eta harrotasunez joan, gure zai luzaroan jarrai eta ez egon apuruan,

“Maiatzak hiru” taldeak beti izango dik gogoan!

DIHOAN LEKURA
DIHOALA, BERTAKOAK
PREPARA DAITEZELA!

Betiko lagunak

Andoainen, 2026ko uztailaren 14an

Eskelak jartzeko:
943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

Eskelak Aiurri:
90 euro^{+BEZ}



Datorren Aiurri astekaria irailaren 4an banatuko dugu. Uda on, irakurle!

Argazkiak, bideoak, albisteak, agenda

AIURRI.EUS, UDAKO ALBISTEGIA

www.aiurri.eus



GIPUZKOA
Foru Aldundia

Babestutako hedabidea

***Mendira,
hondartzara,
festara...***



***Uda honetan ere
zurekin eramango
gaituzu***

Okm:
*batzen gaituen
distantzia*